

# KUDEAKETA POLITIKA

Meatze zaletasunean oinarrituz, balio erantsizko produktu kate baten garapenean lehena izan nahi duen Talde Industrial bat da CALCINOR, gure eraginaren lekuetan. Aldi berean gure bezeroak, gizarte ingurunea, langileak eta akziodunak gogobetetzea bideratuta egonik.

CALCINOR eko zuzendaritzak politika honen erreferentzi markoaz baliatuz eta sorturiko betebeharretatik helburuak zehazterakoan, honako **baloreak** kontuan izango ditu:

<b>BEZEROA</b> Gure negozioaren funtsa da. Hori dela eta egunero saiatzen gara bere konfiantzazko hornitzailea izaten.	<b>ERRESPETUA</b> Talde lanean aritzen gara, egiak, legeak, konpromisoak, ideiak eta kulturak egoki duen errespetua bermatuz.	<b>KALITATEA</b> Gure bezeroen beharrak eta itxaropenak gogobetetzen ditugu bere erabileretarako behar dituzten produktuak, zerbitzuak eta laguntzak eskainiz.
<b>NEURRITASUNA</b> Gure jarduera era soilean garatzen dugu, bitarteko egokiekin balio erantsia sortuz.	<b>ERANTZUNKIZUNA</b> Ekimenarekin jokatzeko dugu, arazoei aurre egin eta irtenbidea aurkitzeko, horretarako dagozkion erabakiak eta erantzukizunak gure gain hartuz, banaka edo elkarrekin.	<b>IRAUNKORTASUNA</b> Erakunde sendo eta eraginkor bat eraikitzen dugu, luzaroan iraun eta hazteko inbertituz, gure ezaguera eta eskarmentua garatuz eta zabalduz.

Kalitate, Ingurugiro, Energia, Osasun eta Segurtasun kudeaketa sistemaren etengabeko hobekuntza oinarrituz, beti ere gure helburu markoaren barnean definituta, honako hauek dira gure **jokaera irizpideak**:

- **Pertsonen ezagutza** eta potentzialen kudeaketa.
- **Prozesuen identifikazio eta ebaluazioa**, jarduerak eragindako ingurune-inpaktuak eta lan-arriskuak kontuan hartuz, une ahulak antzeman eta hauen hobekuntza prozesuetan beharrezko diren **ekintzak eta kontrolak ezarri**, modu honetan, kudeaketa sistemaren, ingurugiro eta energiaren etekina eta laneko segurtasun eta osasunaren etekina hobetuz.
- Gure jarduerak aurrera eramaterakoan izendatuak ditugun **baliabideak modu egokian** erabiltzea eta energetikoki erangikorak diren produktu eta zerbitzuak eskuratzen laguntzea.
- Intzidentzi, instripuek eta gaixotasun profesionalak ezeztatze helburuarekin, **laneko osasun eta segurtasunerako arriskuak murriztu eta deuseztatu**.
- Kudeaketa sistema baten inplementazioa haren **objektibo eta helmuguen** bitartez gure bezeroen beharrak gehiago betetzeaz gain, ingurumenaren protekzioa, kutsadura saihestea, energiaren optimizazioa eta lan baldintza seguru eta osasungarriak, osasunaren hondatze eta kalteen prebentziorako.
- Produktuen kalitatea, ingurumen inpaktua, efizientzi energetikoa, energiaren erabilera eta kontsumoa, eta jarduerak sortutako kalteen eta osasun hondatzearen prebentzioarekin erlasionaturik dauden eta aplikagarri diren **legezko betekizunekin** aurrera egiteko **erantzukizuna**.
- Kudeaketa sistemaren garapenerako ekintzen ondorioak, **langile guztiei kontsultatu eta parte arazi**, ordezkariek barne.

Pertsonak enpresako osagaririk garrantzitsuena izanik, politika honen ondorioz sortzen diren helburuak lortzearren, REFRACTARIOS KELSEN S.A. ek **giza talde profesional bat** izan nahi du parte-hartu eta inplikaturiko dena. Eta horrela gauzatu dadin, erantzukizun osoa hartuko du langileei helburu horien berri ematen, eta hauek prestatzen eta inplikatzen.

REFRACTARIOS KELSEN S.A. eko zuzendaritzak bere gain hartzen du politika honek eskatzen duen ahalegina, eta baita hori lortzeko beharrezkoak diren **baliabideak jartzea**. Aldi berean, politika honen izaera publikoa eta eskuragarria dela eta eguneratua dagoela ziurtatzen du.

D. Pablo Lertxundi  
Gerentea.

**REFRACTARIOS KELSEN S.A.**

**Aduna, 2022ko Iraila**